

Euskararen eta euskaraz egindako kulturaren historia egiterakoan, ezinbestekoa da kazetaritza aipatzea, bai eta aldizkari horiek egin zituztenak ere, ezezagun samarrak izan arren. Gerra aurrean bazegoen euskal kazetaritzarik: Iparraldean 1887. urteaz gero Baionako *Eskualduna* astekaria bazegoen, euskara hutsezko aldizkaririk iraunkorrena. Hark lortu zuen Iparraldeko euskaldunen irakurzaletasuna —eta Hegoaldeko askorena ere— piztea.



Bittor
Garitaonaindia,
elizgizona,
musikaria eta
kazetaria
(1876-1929)

Antzeko gauza egin zuten Hegoaldeko beste aldizkari batzuek. Onenetariko bat Donostiako *Argia* astekaria izan zen. Askoren ekimenez sortu eta mantendu zen aldizkari hura, baina izenik nabarmentzekotan, berehalaxe Bittor Garitaonaindia datorkigu burura. Zuzendari bakarra ez izan arren, *Argia*-k izan zituen garrantzitsuenetariko bat izan zen, dudarik gabe.

Bittor Garitaonaindia Durangotik gertu dagoen Zaldibar herrian, Zapatariko etxean, jaio zen 1876ko martxoaren 6an. Aita Balerio herriko maisua zen. Harengandik zetorkion Bittor mutikoari musikazaletasuna, bere bizitza osoan mantendu zuena. Aitarekin eskolan ikasi zituen lehen letrak; zortzi urte zituenetik, Ermura joaten hasi zen musika ikastera; eta hamaika urte zituela, Urduñara aldatu zen batxiler ikasketak burutzera. Gero Salamancan, jesuiten etxean, Teologia ikasi eta abade egin zen. Elizgizona eta musikari trebea izanik, Zamorako katedralera joan zen kantatzera, eta bertan lau urte eman zituen. Hain ahots polita izanik, Donostiako jesuitek



deitu zuten Euskal Herrira kantari etortzeko. Halaxe egin zuten, eta Orfeoi Donostiarrarekin harreman ezin hobeak izan zituen.

Donostian, ordea, beste zaletasun bat sortu zitzaion: euskaltzaletasuna eta kazetari izateko grina. Bere laguna

zen Gregorio Mujikaren *Euskal-Esnalea* aldizkarian hainbat testu argitaratu zuen. Garitaonaindiak, beste euskaltzale askok bezalaxe, ikusi zuen Gipuzkoan bazegoela euskara hutsezko informazio-aldizkari bat argitaratzeko beharra. Eta halaxe egin zuten.



Garitaonaindiaren jaiotetxea Zaldibarren eta harmarria.

Garitaonaindia
apaiz jantzita.



Bitorren harrizko irudia Zaldibarren jarri zen egunekoa, 1955 urtean.

ARGIA-REN SORRERA

1921eko apirilaren 24an kaleratu zen *Argia*-ren lehenengo alea; 800 zenbaki inguru atera ziren bere hamabost urteetan, 1936an, Gerra Zibila piztu zela eta, desagertu arte.



1921eko apirilaren 24an agertu zen lehen aldiz *Argia* astekaria. Gerra Zibila piztu arte argitaratu zen Donostian, larunbatero.

Nortzuek eta zergatik bultzatu zuten euskal astekariaren sorrera? Sei pertsona, sei euskaltzale, bildu ziren Donostian asmoa burutzeko. 1928an *Argia*-n bertan agertutako testu batean esaten denaren arabera, hiru apaiz eta hiru seglar izan ziren *Argia* atera zutenak. Elizgizonak Bittor Garitaonaindia *Garbi*, Erramun Intzagarai *Elurmendi* eta Jesus Karrera ziren. Beste hirurak Gregorio Mujika *Jeme*, Ander Artzelus *Luzear* eta Antonio Lizarraga ziren. Beste bat erantsi behar dugu: Ambrosio Zatarain. Bere semeak kontatu digun bezala, dirua ipini eta “Nekazaritza” atalaz arduratu zen. Hauen guztien asmoa euskara bultzatzea zen, euskaraz irakurtzen ez zutenek irakurtzea nahi zuten.



Gregorio Mujika, 1882-1931.



Ander Artzelus, *Luzear*. Donostian jaio zen 1898 urtean eta Baionan hil 1949an. *Argia*-ko sortzaileetakoa, aldizkariaren zuzendaritza hartu zuen Garitaonaindia hil ostean. *El Día* egunkariako euskal orriaren arduraduna zen.

Astekaria sortzeko erak, puntu askotan, gogorarazten digu euskaraz egin diren beste asmo askotan erabilitakoa. Euskara maite zuten eta euskara bultzatzeko asmo bat beren

gain hartu zuten lagun-taldeen historia zaharra da. Antzeko moduz agertu zen *Gero* liburua bera. Axularrek eta bestek sumatu zuten halako liburu baten falta, eta beraiek egitea erabaki zuten, kosta lain kosta. Bittor Garitaonaindiak ere, ikusi zuen Donostiara joan zenean, herriko jendearentzako aldizkaririk eza, eta orduan, beste adiskide batzuekin batera, erabaki zuen sortzea.

nekazaritzaz, irakurleen bizimoduaz, arduratzea.



Anbrozio Zatarain, *Lugin-zale* 1881 urtean jaio zen Usurbilen (1966an hil) "Nekazaritza" ataleko arduradun gisa artikulua idatzi eta gai horren inguruko galderei erantzuna ematen zien.

Asmoak, bada, argi eta zehatzak ziren: alde batetik, euskararenganako zaletasuna piztea, nekazariarentzako hizkuntza errazaren bidez irakurgaiak eskainiz; bestetik, fedea eta kristautasuna mantentzea herrietan eta euskaldunen artean; eta, azkenik,



"Nekazaritza" ataleko artikulua.



TALDE LANA

Hasieratik idazle-talde baten lana ezinbestekoa izan zen; haien artean Bittor Garitaonaindia eta Gregorio Mujika zeuden. Azken hau arduratu zen lehen urteetan astekariaren bizitza osoan iraungo zuen atal batez: “Astea”.

Mujikaren lana izugarria izan zen. Dudarik gabe, euskal kazetaririk hoberenatariko bat izan zen. Denetariko gai eta generoei buruz aritu zen bere luma trebeaz: umorezkoak, historikoak, ohiturazkoak izan zituen gai gogotsuenak. “Astea” atala bere maisutasunaz gidatu zuen urte luzeetan zehar, *Argia*-ren kontzientzia bihurturik. Irudimena ere ez zuen makala, Pernando Amezketarra liburuaren egileari dagokiona hain zuzen ere.




Beste idazle aipagarri bat Jose Maria Agirre Egaña, *Xabier Lizardi* izan zen. Artikulu asko idatzi zuen *Argia*-n, *Itz-lauz* eta modu osoago batez *Kazetari-lanak* liburuetan ikus daitekeen bezalaxe. *Argia*-n argitaratu zuen lehen testua 1926ko abenduaren 26koa da eta lehenengo orrialdean agertu zen: “Gabon-ipui-berria: Xabiertxo’ren eriotza”. *Argia*-n egin zuen emaitzarik garrantzitsuena 1927an argitaraturiko “Berriketak”

izeneko artikulu-sorta da. Baserritarrei zuzenduriko atal hau Jon Zabalo, *Txiki*-ren marrazkiez txukunduta zegoen.



Garitaonaindiak eta besteek herriko jendearentzako aldizkari irakurgarria, hitz lauz idatzia, jendeak erabiltzen duen gipuzkeraz egina, plazaratu nahi zuten. Irakurleak beti izan zituzten oso kontuan. Hiriko zein herrietako euskaldunak. Nekazaritza eta baserritarrak gogoan zituzten beti.





Garitaonaindiaren liburuak. Idazle trebea ere izan zen. Antzerkizale amorratua, lan batzuk idatzi zituen, argitaratutakoen artean hauexek ditugu: *Ongilearen sariya*, *Aitona ta biloba* eta *Iziartxo*. Erljiioari buruzko liburuak eta umeentzako liburuak ere idatzi zituen. Oso ezaguna izan zen bere garaian *Ipuin laburrak*, Euskaltzaindiaren enkarguz idatzia.

Argia-n maila eta mota guztietako literaturarekiko harremanak nabariak izan ziren. Garitaonaindiak berak ere lan literarioak argitaratu zituen. 1922ko irailean Gernikako Eusko Batzarrean Errenteriako eta Debako Batzokietako antzerki-taldeek *Iziartxo* bere idazlana antzeztu zuten, Katariñe Eleizegiren *Garbiñe* obrarekin batera. Urte berean Garitaonaindiaren umeentzako liburutxo bat argitaratu zuen Euskaltzaindiak, *Ipuin laburrak umetxoentzat*. Batez ere antzeslanak idatzi zituen gure On Bittorrek: 1917an idatzitako *Iziartxo*-z gain, hor ditugu 1920ko *Aitona ta billoba* eta 1922ko *Ongillearen saria*. Hori guztia musika alde batera utzi gabe: euskal kantu herrikoiak biltzen zituen *Euzkal-Abestiak* liburua argitara eman zuen 1925ean.

Bertsolariak ere maitatzen zituzten *Argia*-koek, Errepublika garaian astero “Bertso berriak” izeneko atala argitara eman baitzuten, eta Euskaltzaleak taldeak antolaturiko Olerki egunetan, besteak beste, laguntza ematen zuten.

IRAKURLEAK GOGOAN

Sortzaileek Euskal Herrian ikusten zuten hutsune bat betetzera zetozen, euskaldunentzako ia aldizkaririk ez egoteak uzten zuen hutsune hori, hain zuzen ere. *Argia* euskarak kulturaren alorreko gauzetarako balio duen ala ez eztabaidatzen zenean sortu zen. Donostiako astekaria abian jarri zutenen iritzia, zer esanik ez, edozertarako balio zuelakoa zen. Haien betebeharra, aldiz, askoz ere umilagoa zen, herriko euskaldunei heldu nahi baitzieten:

Gure lana beragokoa da; lurraren axalean ibilli nai giñake, oraindik ortxen daude ta euskaldunen abarka eta mantarrak; bañan astero-astero irakurri ezker gure papertxo au, gure irakurle maiteak asko ikasi dezakete, uste gabeka ta pittin-pittinka eragin oi diralako nagusi izena daramate gizarteko jakinbide guzik.

Euskaldun alfabetatugabeak alfabetatzea zen beren asmorik nagusietariko bat. Momenturik egokienean sortu zen aldizkaria: 20ko eta 30eko hamarkadetan euskalduntze- eta alfabetatze-prozesua gorantza zihoan. Irakurleria hark komunikabideak behar zituen, euskarazko informazioa, eta *Argia*-k, beste aldizkari batzuek bezala, eskaini zien. 30eko hamarkadan gero eta

euskaldun alfabetatu gehiago zegoen, gero eta ume gehiagok euskaraz irakurri eta idazten zekiten edo ikasten ziharduten. Ume euskaldunak izango ziren bereganatu nahi izan zuten irakurlego berria, eta komunikabide berriak eskaini zizkieten, komikiak esaterako.

Gauzak ondo zihoazen 1923an, Primo de Riveraren diktadura heldu baino hilabete batzuk lehenago; *Argia* sortu zuen talde haren asmoak beteak ziren, eta denborak arrazoia eman zien: bazegoen euskaraz irakurtzeko publiko bat, inork landu ez zuena, nekazarien artean. *Eskualduna*-k Iparraldean egin zuenaren antzera, *Argia*-koek irakurleria ahaztu bati begiratu zioten, eta lortutako arrakasta horren froga garbia dugu. Bazekiten zer nolako irakurlea izan nahi zuten eta bazekiten zer nolako informazioa eskaini behar zioten. Horretarako bazeukaten beren atzean mende batzuetako tradizio sendoa, Elizarena hain zuzen ere. Denboraren poderioz *Argia*-k ez zuela luzaro iraungo ziotenek ikusi zuten nola posible zen nekazariantzako euskara hutsez idatzitako aldizkari bat plazaratzea.



Umeak *Argia*-ren arrakastan ezinbesteko faktore izan ziren, haiek bazekitelako euskaraz irakurtzen. Euskarazko alfabetatzea hasia zen, eta baserri eta etxe askotan umeek irakurtzen zizkieten helduei albiste eta testuak.

Miguel Primo de Rivera generalaren diktadurapean, Bittor Garitaonaindia *Argia*-ren zuzendari bihurtu zen, 1923ko martxoan lehenengo zuzendaria, Jesus Karrera, hil ondoren. Ez zen urte hartako galera bakarra. Hilabete inguru geroago, *Argia*-ren laguntzailerik handienetako bat ere hil zen: Pedro Migel Urruzuno. Gutxi izango balitz bezala, uztailean Euskal Herriak izan duen euskaltzalerik handienetariko bat ere zendu zen: Luis Eleizalde.

1923ko irailean Primo de Riveraren estatu-kolpea gertatu ondoren, *Argia*-koen jarrera oso zuhurra izan zen. Egoera larri eta nahasi horren kontra borrokatu egin behar izan zuten Garitaonaindiak eta *Argia*-ko beste guztiek, zuhurtasun handiz, aldizkaria astero kaleratu ahal izateko. Gogora dezagun Ambrosio Zatarainek kontatzen duena, nola bere aita eta Bittor Garitaonaindia joan ziren gobernadore militarrengana. Gobernu berriak debekatu egin zuen aldizkariak euskaraz ateratzea. Zorte ona izan omen zuten, Juan Artzadun gobernadore militarra bera ere euskalduna baitzen, eta euskaraz ateratzen jarraitzeko baimena eman

ziren, baldintza txiki batekin: erdaraz irakurtzen ez zekitenentzat atal bat atera behar zuten, “euskerazko berba bakoitzaren ondoan gaztelanizko berbea ipiñi bear euan”, Zatarainek dioenez.

Argia-k ez zuen arazo asko nonbait, eta politikari dagokionez, hasieratik esana zeukaten “politikarietan” ez zirela sartuko; beraz, bere nazionalismoa, existitzen bazen, nahiko epela zen, Errepublikan ez bezala. Baina, nazionalistak al ziren? Garitaonaindiari dagokionez, badirudi baietz. Bittor Garitaonaindiaren abertzaletasuna antzinakoa omen zen;



Lehen urteetan, baita Primo de Rivera generalaren diktaduraren garai latzetan ere, oso ondo saldu zen *Argia* Euskal Herri osoan, batik bat Gipuzkoan. Ostiralerako egina zen, eta larunbatetan probintziako hainbat herritan banatzen zen. Irudian Debako saltzaile gazte bat dago, bezero bati astekariaren ale bat ematen.



Hasiera batean *Argia* ez zen politika-kontuetan sartu, hala ere, Euskal Herriko lege zaharren aldekoa zen.

Engrazio Arantzadi, *Kizkitza*-k aipatzen du, Garitaonaindiaren abertzaletasunaren adibide bat emateko, 1912an gertatutakoa: Cadena y Eleta Gasteizko gotzainak aldarrikatutako euskal izenen kontrako pastoralara. Ondo zekien zaldibartarrak, orde, nola egoera larrien kontra jokatu. *Argia*-k diktadurapean jarraituko bazuen, ezin zen abertzaletasuna aldarrikatu. Beraz, *Argia*-ren borroka euskara, fedea eta nekazarien aldekoa izan zen.

Hurrengo urteak nahiko lasaiak izan ziren. *Lizardi* hasi zen *Argia*-n idazten. 1929an euskarazko egunkari bat sortzeko ideia eta asmoa plazaratu zen, nahiz eta azkenean ez burutu. Diktaduraren azken urte haietan euskal kulturarentzat hain garrantzitsua eta eraginkorra izango zen elkarte sortu zen: Euskaltzaleak. *Argia* eta haien arteko harremanak oparoak izan ziren. Belaunaldi berriaren garaia heldua zen, aurreko aitzindariak hilda. Ebaristo Bustintza, *Kirikiño*, Bilboko *Euzkadi* egunkariko euskal atalean gure kulturaren alde horrenbeste lan egin ondoren, mundu honetatik aldendu zen 1929ko otsailean; *Garbi*-k agur egiten dio artikulu batean. Garitaonaindia bera ere hilabete batzuk geroxeago hil zen, urte hartako irailaren 3an, 53 urte

zituenean. Ander Artzelus, *Luzear* zuzendari berria bihurtu zen, Errepublikako atarian.



Betiko baloreen zaindaria zen *Argia*. Familia horietako bat zen. Irudi zein testuen bidez defendatu zuten beti ideia hori.

EAJren buruzagiak maiz agertzen ziren *Argia*-ren orrialdeetan Errepublika garaian, hain korapilatsuak izan ziren 30eko hamarkadako garai hartan.



Joseba Zubimendi (1898-1939). Donostian jaioetako olerkari hau garaiko hainbat aldizkari eta egunkaritako kolaboratzailea izan zen.

ARGIA ETA EUSKAL IRRATIA

1925ean Radio San Sebastián sortu zenean, *Argia*-n harrera ezin hobea egin zioten. *Argia*-koek ikusi zuten herriatik hurbileko komunikabide bat bezala, nekazariei euskaraz hitz egiteko txit egokia. Radio San Sebastián hasi zenez geroztik, irrastian sartzeko ahalegin guztiak egin zituzten. *Argia*-ren laguntzaz, Gipuzkoan irratiaren aldeko iritzi-korronte bat sortu zen. 1928rako, Gipuzkoan irratia bazuen entzule ugari. Donostiako astekarian esaten denari kasurik egiten badiogu, nekazariak ere ezin hobeto hartu zuten irratiaren etorrera. 1932an Ander Artzelusek eta Joseba Zubimendik —biok *Argia*-ren laguntzaileak, lehena gainera zuzendari-ohia— hasiera eman zioten asteroko euskal irratsaio bati, ezer kobratu gabe, Euzko Gaztediak hala eskatuta. 1934ko urtarrilean ehungarren programa aireratu zuten.

EUSKARA HUTSEZKO EGUNKARIAREN ASMOA

1929an, Euskaltzaleak taldeak eraginda, planteatu zen euskarazko egunkari bat argitaratzeko aukera. *Argia*-n horren berri ugari eman zuten, eta badakigu Donostiako astekaria euskal egunkariaren asmoari oso lotuta zegoela. *Argia* bihur zitekeen euskal egunkari berria? Baliteke; *Lizardi*-k uste zuen ez zegoela egunkari berria ateratzerik, ez zegoela inprimategi berri bat erosterik, ez eta langile berririk kontratatzerik. Idazlearen ustez, hoberena izango zatekeen ziren euskal aldizkarien artean batean oinarritu eta egunkari berririk ateratzea.

Lizardi-k berak eta Txomin Arruti, *Mendi-Lauta*-k, beste batzuen artean, proposatu zuten ideia. Momenturik egokiena ematen zuen —eta gaur egunetik begiratuta ere hala dirudi— euskarazko egunkari bat kaleratzeko: lehen aldiz uzten zuen egoera politikoak horrelako asmoak burutzen, *Argia*-k irakurleria garrantzitsu bat lortu izan zuen, denetariko aldaketek kazetaritza modernorako baldintzak bultzatzen zituzten, baina, arazo ekonomikoak zirela medio, *Argia* ez zen egunkari bihurtu. Euskal Herriko euskara hutsez idatzitako lehenengo egunkaria izango zatekeen. Asmoak frogatzen du behintzat euskarazko kazetaritza posible zela.

11



Xabier Lizardi,
1896-1933



Euzkadi egunkario
"Euzkel-atala"-n agertu
zuten Lizardi, 1929 urtean
zehar, euskal egunkariaren
inguruan zuten aburuak.



Txomin Arruti, Mendi-Lauta.

TXISTU, EUSKAL HERRIKO LEHEN KOMIKIA

Ahalik eta irakurleria handienari
heltzeko nahian, *Argia*-koek ezin
zituzten umeak ahantzi. Hezkuntz
sistema ez ezik, komunikabideak ere
behar zituzten. Aldizkaria irakurtzen
zutenen artean, ziur aski bazegoen
haur ugari. Gainera, umeak ziren
euskaraz irakurtzeko gai ziren
gehienak, heldu askok ez baitzekiten
ondo irakurri eta konprenitzen.
Umeentzako irakurgai batzuk, beraz,
sortu nahi izan zituzten *Argia*-koek.



Euskal Herriko lehen komikia izan zen *Txistu*, *Argia*
inguruko ikasle eta arkitekto batzuek prestatua.
1927an ale batzuk argitaratu omen ziren, baina
haien arrastorik ez da gelditzen. Urtebete lehenago,
ordea, *Argia*-n frogatzen zuten, argazkian
ikus daitekeena.

Euskaraz komiki bat ateratzeko ideia Madriletik etorri zen, han Arkitektura ikasten ari ziren ikasle batzuek eta Aton Alaiza arabarrak proposatuta. Gorabehera askoren ondoren —Alaiza bera hil zen egitasmoa gauzatzear zegoenean, 1926an—, azkenik 1927an lortu zuten aurreko urtean landutako ametsa betetzea: *Txistu* kaleratzea. Baina, arrazoi zehatzak ez dakizkigula, oso ale gutxi atera ziren, eta 1928an utzi zioten komiki hori kaleratzeari.

KAZETARITZARAKO HIZKUNTZ EREDU BAT

Hizkuntz eredu bat hautatzean ere Garitaonaindiaren itzala nabaria da. Zaldibartarra izan eta bizkaieraz, beraz, mintzatu arren, gipuzkera erabiltzearen defendatzaile porrokatua zen. Berak uste zuen euskalki guztien artean bat bakarrik hautatu behar zela idazteko, eta euskalki hark gipuzkera izan behar zuela. Teoria hori erakusteaz gain, berak erabilitako idazkera gipuzkera zen; *Argia*-n irakurtzen zena, hain zuzen ere. Batasunzale amorratua zen. Euskaltzaindiak euskal idazle guztiei eskatu zien batasunari buruzko iritzia eta 1922an erakundearen *Euskera* aldizkarian argitaratu ziren. Garitaonaindiarenak, laburra bazen ere, izugarrizko eragina izan zuen. Hona hemen gure apaizak zioena:

Bear-bearrekoa da euskal-idazkeraz guztiok bat egitea. ¿Zein bide izango da egokiena euskal-bakuntza ori lortuteko? Autetsi lenbizi ditugun izkelgietatik bat, eta arteztu, bere anaiak dituzten osaguneak ezarriaz. Nire aburuz, gipuzkoar izkelgia autetsi bear da, beste izkelgiak baño obari geyago dituelako bere alde. Errezagoa, bai zabaltzeko ta bai ulertzeko.

13




Eta areago zioen:

Idazle guzien euskera ori ez da izango gaur-egunian itz edo idazten dan gipuzkoera; baizik **osotua** —azpimarratua geurea da— apaindua. Orretarako, euskaltzainak lan egin bear dute: Artu, bai Bizkaï'ko ta Zubero'ko, ta bai Napar ta Laburdiko izkelgi edo izkerak dituzten edertasun ta obekuntza bereziak, ta gipuzkoar izkelgiari ezarri. Orrela erabatuaz izango degu dagokigun idazkera, ta gure enda zar ta zintzoaren omengarri izango dan euskera garbiya.

Euskararen batasunaren auzia pil-pilean zegoen momentu hartan, eta proposatutako irtenbideak oso desberdinak izan ziren. Batzuk ez ziren batasunaren alde azaltzen, eta hizkuntza batzearen aldekoak ez zetozen bat batasuna burutzeko proposatutako irtenbideetan; batzuek euskalki bat proposatzen zuten, beste batzuek beste euskalki bat. Lehen euskaltzainburua izan zen Resurrección Maria Azkuek bere *Gipuzkera osotua* liburua idatzi eta argitaratu baino urte batzuk lehenago, Garitaonaindiak gipuzkera osotuaren beharra planteatu zuen; are gehiago, plazaratu ez ezik, neurri handi batean praktikara eraman ere egin zuen, liburuak baino iraunkorragoa zen komunikabide batean, *Argia* astekarian. Esan dezakegu, oker

egoteko batere beldurrik gabe, *Argia*-n irakurri ahal zen idazkera Hegoaldeko lehenengo euskara baturantzako emandako adibiderik hoberenetariko bat dela, *Eskualduna* astekariarena Iparraldekoa zen bezalaxe.



Euskaltzaindiko lehen presidente izan zen Resurrección Maria Azkuek euskara estandar baterako proposamena, —gipuzkera osotua—, Bittor Garitaonaindiaren txosten batean oinarritzen zen. Proposamena zera zen: euskalki baten gainean, gipuzkeraren gainean alegia, gainontzeko euskalkien ekarpenak eta batez ere hitzak hartu osatzeko eta koiné moduko bat sortu.

HERRIETAKO KAZETARI EZEZAGUNAK

Beste gauza bat ere lortu zuen *Argia*-k: jende arruntak idaztea. Gero Donostiako bulegoan herrietako berriemaileek bidaltzen zituzten testu guztien idazkera batu egiten zuten batzuek. Nortzuk ziren “Euskalerriko berriak”, esaterako, idazten zituztenak? Norengandik zetozen berriak? Berriemaile haiek bere herriaren eta askotan inguruko herrien berri ere ematen zuten. Baina, *Argia*-n agertutako lekukotasunek susmarazten digutenez, horretaz gain, askotan, “idazkari” haiek *Argia* banatzeaz ere arduratzen ziren.

Nolako berriemaileak ziren jakiteko, onena *Argia*-n agertutako lekukotasun bat eskaintzea da. Testimonio hau ezin dela kasu eta herri guztietan aplikatu jakin badakigu, baina ziur aski gure astekarian sistematik erabiliena izaten zen. Aipatu testuan idazle ezezagun batek Don Felipe delako bati omenaldia egiten dio. Don Felipe hura Oñatiko apaiza zen, herri nahiko handi batekoa, beraz. Abadea Oñatiko *Argia*-ren “idazkaria” zen:

Pelipe asko dira Oñati’n, Felipe edo ta Don Felipe’re bat edo beste ere bai noski, Don Felipe’rik bat bakarra ta berak Jainkoak eraman digu (...).

Nunnai ta noiznai euskera garbi erabiliko zuan. Euskal ingi ta idaztiak Don Pelipe izan-oi zuten Oñati’n zabaltzalerik beroena. Euskal-idazti bat argitaltzeko zegoan berri artu ordukoxe eskatuko zituan sei-zortzi bat, bere idaztitegi ederrerako bat euskaltzale berriren batzuen artean zabaltzeko. Beste onenbeste egin oi-zuan izparringiekaz ere. Eta, jakiña, ARGIA’k ere Don Pelipe izan bear bere zabaltzalerik sutsuena. Argitaldu baño askoz lenago asi zan bere berri ona zabaltzen. Lenbiziko zenbakia Oñatiratu zanean, or dijua Don Pelipe bere sakel zabalak (zabalak zituen Don Pelipe’k sakelak biotza bezalaxe) ARGIA’z beteak dituala.

15



Garai berrietan gai berriei buruz ere aritu zen *Argia*. Kirolak, adibidez. Euskal Herriko betiko kirolak (pelota, estropadak) eta modernoak: futbola —hasiera batean asko maitatu ez arren, laster zaletu asko bereganatuko zituen gure artean—, txirrindularitza, eta automobilismoa ere bai. Gidari ospetsuenen irudia ikus zezaketen *Argia*-ren irakurleek.



—Eldu zaigu ba ARGIA ere —esaten dio mutil gazte bati bat luzatuaz— oso polita dator.

Arutzago, solo-muturrean, zati bat irakurtzen dio baserritar bati. Baserritarra adurra dariola da nekazaritza'ko atala entzuten.

—Eutsi —esaten dio Don Pelipe'k— zerorrek apurka apurka irakurriko dezu astea joan bitartean.

—Neronek ezingo det irakurri, baña gure Josetxu ia polito dator eskolan eta berari irakurri eragingo diot.

Onela sei-zazpi zenbakiak zabaldu ondoren etxeruntz dijoala... Eta gero euskera izkutatuaz, eroriaz, galduaz dijoala... Ez erri bakoitzean Don Pelipe bat bagenu!

Adibide honek erakusten digu zer nolako pertsonengan jartzen zuten konfiantza. Herri bakoitzeko euskaltzale amorratu bat, eta euskaraz idazten zekiena, behar zuten, Don Peliperen gisako bat. Seguruena, herri gehienetan baldintza horiek betetzen zituena apaiza zen. Bide batez, hasieran behintzat, hedatzeko lana ere astekarian idazten zuenak egiten zuen.



Astekariaren inguruan zeudenak hainbat gizarte-mugimenduren alde agertu ziren: euskal sindikalismoa (baserritarren sindikatuak) eta kooperatibak, adibidez, gogoko zituzten.

Euskal Herriko mugaz kanpora ere ailegatzeko omen zen Argia. Misiotetara, adibidez. Ez zen falta astekarian irudi bitxirik: txinatar bat Argia-ren ale bat eskuetan duela.



Errepublika aurreko urteetan, 1929an eta 1930ean, Ander Artzelus izan zen zuzendari berria. Donostian jaioa 1898an, hainbat eta hainbat euskal aldizkaritan idazten zuen, hala nola *Euzkadi* egunkarian. Gero, euskara hutsezko egunkariaren egitasmoak porrot egin zuenean, *El Día* egunkariko euskal atalaz arduratu zen. Liburu batzuen egilea ere bazen: *Neskamearen marmarrak* eta *Euzkadi! Agur!* idatzi eta argitaratu zituen.

Ander Artzelusek *Argia*-ren zuzendaritza hartu zuenerako, astekariaren bidea garbi azaltzen zen. Agian, bere punturik altuenera iritsia zen. 1928an ale gehiago argitaratu ahal izateko makina berri bat erosi zuten.

Errepublikarekin batera, *Argia*-ren etapa berri bat hasten da. Buru-belarri sartu ziren politika-munduan. Beraientzat, Errepublika, nolabait, mehatxua zen. Sistema laiko baten barruan, katolikotasunaren iraupena zalantzan ikusten zuten, eta ezkertiarren garaipena arriskutsua zen beraien interesetarako. 1931ko maiatzean Euskal Herriko eskubiko alderdi guztien batasuna proposatzen dute hauteskundeetarako. Errepublikan —batez ere lehenengo

urteetan— abertzaletasunerantzako joera nabarmena da, gero eta nabarmenagoa.

Beharbada Errepublikaren beldur zirenez gero, mantxetaren ezkerreko partean San Migel arkanjelua agertzen da, “Mikel Donea, zaintu Euskal erria” lemapean.

Artzelusen atzetik, Joseba Arrue apaiza —1997ko abenduaren 27an zendu zena— *Argia*-ren zuzendari bihurtu zen Errepublikako lehenengo bi urteetan, 1932 arte. Gregorio Mujika, *Jeme*, *Argia*-ren zutabetako bat, 1931ko abuztuan hil zen.

17



Errepublikan *Argia*-koak San Migelen babespean jarri ziren.

Estatutuaren alde agertzen dira, eta baliabide berriak erabiltzen dituzte: idazpuru edo titular “korrituak”, aleluiak, argazki eta marrazki gehiago, artikulu ausartagoak eta, orokorrean, kazetaritza-baliabide gehiago. Sindikalismo nazionalistaren abantailak ere aldarrikatzen hasi ziren. 1931ko abenduan “Gipuzkoa’ko nekazariak” bilduko zituen sindikatu berriaz mintzatu ziren. Sindikatu hura Euzko Nekazarien Bazkuna izango zen.

Garai berriak, irakurle berriak, idazle berriak. Euskal literaturaren urrezko garaia: *Lizardi* bere momenturik onenean dago, *Lauaxeta*-k *Bide barriak* liburua argitaratu zuen, *Orix*-k ere bere obrak atera. 1933an diseinuak eta neurriek berdinak izaten jarraitzen dute. Ordurako *Argia*-k beste zuzendari berri bat zeukan: Patxi Etxeberria, *Bostlore* jesuita. Espainiako egoera politikoa gero eta nahasiagoa da.




Joseba Arrue.

1935ean etapa berri bat hasi zen. 1930ean, euskal egunkariaren asmoak porrot eginda, *El Día* agertzen da; agi denez, Donostiako egunkari berriaren sorrerarekin batera, *Argia*-ren salmentak jaitsi egin ziren. Orrialde-kopurua gehitzen da, inprimatzeko sistema berri garesti bati esker, huts-grabatua. Aldaketa kualitatibo bat nabaritzen da *Argia*-n une hartantxe. *Argia*-k, egunkari bihurtzeko aukera galduta, beste bide batzuk bilatu zituen: “magazine” bihurtzen saiatu zen.

Argazki gehiago —eta kalitate handiagokoak —sartzen dira huts-grabatuaz egindako lau orrialdeetan. Zaraguetak, Eskubik, Etxandik eta Landazabalek egiten zituzten argazkiak. Indalezio Ojangurenak ere aterako zituen bere argazkiak hurrengo aleetan. Bi koloretakoak ziren. Oso irudi erakargarriak, gai ugaritakoak: kirolak, euskal jaiak, Euskal Herriko alderdiak, erretratuak, irudi erlijiosoak...

19



Patxi Etxeberria, Bostlore.

Zer lortuko zen Gerra Zibila etorri ez balitz? 1936an, beste hainbeste gauzarekin gertatu zen bezalaxe, Gerrak *Argia*-ren bidea betiko eten zuen.

20



1935. urteaz gero *Argia*-k bere inprimatze-baliabideak hobetu zituen. Huts-grabatuko makina bat erosi zuen "lendakari zarra"-ren anaia zen Rikardo Leizaola eta Eneko Deunaren irarkolan "magazine" itxura eskuratu zuen aldizkaria ateratzen hasi zen. Denetiko argazkiak, kalitate onekoak, agertzen ziren, Euskal Herriko herrien irudiak zein bertako jendearen bizitza erakusteko balio zutenak.